



Esp.kodea: 2021PHEP0002

Gaia: AOT Hirigintza  
Hasiera eguna: 2021/10/28

**ALKATETZAREN ERABAKIA**  
**N21/01085**

**Lan pilaketa arrazoiak direla eta, Administrazio Orokorreko Teknikari bat aldi batez izendatzeko Lanbidera jotzea, presazko izaeraz.**

IKUSITA, Juan Antonio Urdangarin Hirigintza buruak adierazi duenez, gaur gaurkoz hirigintzarako administrazio orokorreko teknikari bat kontratatzekeo beharra dutela, hirigintzako arloan garatzen edo garatu beharrean dituzten proiektu eta obra kopurua.

IKUSITA, pertsonaleko administrazio orokorreko teknikariak egindako txostena non proposatzen duen, aukera guztiak aztertuta, eta epe laburreko betebeharrak betetzeko, presazko izaera adieraztea eta LANBIDE enplegu zerbitzu publikora jotzea.

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:

1. Presazko izaeraz, hautaketa prozesu bat deitzea, Hirigintza sailerako aldi baterako administrazio orokorreko teknikari bat kontratatzekeo 9 hilabetez, lan jardun osoz.
2. Hautagaien zerrenda LANBIDE Zerbitzu Publikoaren bitartez osatuko da
3. Hautaketa honako hauen arabera egingo da:

**Baldintzak:**

- a) Espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzutan bizi direnak.
- b) Gutxienez hamasei urte izatea eta gehienez ere nahitaezko erretiroaren adina.
- c) Titulazioa: Zuzenbidean gradua edo baliokidea den titularen jabe izatea, edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea
- d) Euskararen ezagutza: 4. HE (lehenetsi egingo da baina hautagairik ez badago, 3. hizkuntza eskakizuna onartuko da

<b>Kodea</b>	N21/01085	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/urr./28	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAM8WC.3.2icK	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK</a>			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzekeo hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021PHEP0002

Gaia: AOT Hirigintza  
Hasiera eguna: 2021/10/28

- e) Dagozkion egitekoak normal egiteko gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.
- f) Diziplina espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik berezita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ez gaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagozkion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege kausaren batean sartuta ez egotea.

#### Hautaketa honako merituen arabera egingo da:

- Lan esperientzia hirigintzako arloan, administrazio publikoan, karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa edo lan kontratuko langile gisa, administrazio orokorreko goi mailako teknikarien lanpostuetan (A1 taldea), baloratuko da 0,3 puntu hileko, eta gehienez ere 6 puntu arte.
- Formakuntza: Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak emandako ikastaroaren moduluak baloratuko dira (EVETU). Ikastaro osoa + praktikaldia 8 puntu, ikastaro osoa praktikaldia gabe 7 eta modulu solteak bakarrik izanez gero, modulu bakoitzeko puntu bat, gehienez ere 6 puntu. Guztira gehienez 8 puntu.
- Hilabeteko praktikaldia. hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez gai kalifikazioa lortuko da. Praktikaldia amaitzean, Hirigintzako buruak txostena egingo du, praktikaldia honako irizpide hauen arabera ebaluatzeko:
  - Ondorengo alorretan erakutsitako gaitasunak:
    - Lanerako gaitasuna eta laneko errendimendua.
    - Erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua.
    - Ikasteko interesa, prestasuna eta ekimena.
  - Frogatutako gaitasuna, honako hauei dagokienez:
    - Lantaldean integratzea.
    - Barruko eta kanpoko harremanak egokitzea.

Hautagaiak praktikaldia egiten ez badu, edota gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badu, praktiketako bitarteko funtzionario izateari utziko dio eta bitarteko funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu. Praktikaldia gainditzen ez bada, ebazpen arrazoitu bat eman beharko da, hautagaiari entzun ondoren.

<b>Kodea</b>	N21/01085	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/urr./28	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAM8WC.3.2icK	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK</a>			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



**Esp.kodea:** 2021PHEP0002

**Gaia:** AOT Hirigintza  
**Hasiera eguna:** 2021/10/28

○ Aztertuko da hautagai bakoitzari 15-20 minutuko elkarrizketa bat egitea, hautagaien gaitasunak eta hautagaiek plazari dagokionez duten egokitasun maila neurtzeko, gehienez ere 4 punturekin.

4. Tokiko Gobernu Batzarrari erabaki hau berrestea proposatzea.

Alkatea

<b>Kodea</b>	N21/01085	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/urr./28	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAM8WC.3.2icK	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM8WC3.2icK</a>			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				